EBAZPEN-PROPOSAMENA, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, 2025-2026 ikasturtean udal-titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastetxeak finantzatzeko laguntzen deialdira aurkeztutako eskabideei buruzkoa.

2026ko irailaren 16an, Hezkuntzako sailburuaren 2026ko irailaren 8ko Agindua argitaratu zen. Agindu horren bidez, udal-titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastetxeak finantzatzeko dirulaguntzetarako deialdia egin zen, ikastetxe horiek 2025-2026 ikasturtean izandako gastuen zati bat ordaintzeko.

Agindu horren hamaseigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariari dagokio deialdian aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten eskabideak hautatu ondoren, aurkeztutako dokumentazioa ebaluatu dugu. Hezkuntza-zerbitzuen estandarrari lotutako modulu ekonomikoak kalkulatu ditugu, eta udal onuradun bakoitzerako banakako zenbatekoa ere kalkulatu dugu, aginduaren hamabosgarren oinarrian jasotako formularen arabera. Era berean, ondoriozko zenbatekoak justifikatutako gastuaren herena gaindituz gero, laguntzaren zenbatekoa murriztu egin dugu eta muga horretara egokitu, hamabosgarren oinarriak berak ezartzen duenari jarraituz.

Onuradun guztiei dagozkien dirulaguntzen zenbatekoak (14.859.085,04 €) gainditu egiten du deialdiaren zuzkidura ekonomikoa (14.450.000 €). Beraz, egoera hori gertatuko zela aurreikusita, aipatutako hamabosgarren oinarriaren 1. puntuan jasotako hainbanaketa erabili behar izan da. Horregatik, onuradun bakoitzari emandako dirulaguntza –emandako dirulaguntza estandarraren modulu ekonomikoak eta justifikatutako gastua abiapuntu hartuta– kalkulatutako dirulaguntzaren % 97,25 da.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta deialdian ezarritako prozeduraren oinarri arautzaileak betetze aldera, honako hau

PROPOSATZEN DUT

Lehenengoa.- Eranskinean zerrendatzen diren eskabideei laguntzak ematea.

Bigarrena.- Egoki iritzitako alegazioak aurkezteko 10 egun balioduneko epea irekitzea, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Edukira sartu gabe 10 egun natural igarotzen badira, jakinarazpena atzera bota dela ulertuko da, eta izapidea gauzatutzat joko da; hala, prozedurak aurrera jarraituko du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada informazioa eskuratzea ezinezkoa izan dela teknikoki edo materialki.

Alegazioak aurkezteko epea amaitutakoan eta alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena igorriko zaio Hezkuntza Politiketako sailburuordeari, hark deialdia ebatz dezan.

Sinadura digitalaren datan

Eugenio Jimenez Ibañez
IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA/DIRECTOR DE CENTROS Y PLANIFICACIÓN

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

EBAZPENAREN ERANSKINA - EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Laguntzen onuradun diren musika-ikastegien titulartasuna duten udalak

ARABA

zb	Titularra	Zentroko kod.	Zentroaren izena	Emandako dirulaguntza
1	Vitoria-Gasteizko Udala-Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz	010314	EMPU Luis Aramburu MEPU	1.022.167,65
2	Ayuntamiento de Amurrio - Amurrioko udala	010300	EMPU Amurrio MEPU	195.076,99
3	Aguraingo udala / Ayuntamiento de Salvatierra	010301	EMPU Agurain MEPU	122.485,58
4	Ayuntamiento de Alegria-Dulantzi - Alegria-Dulantziko udala	010318	EMPU Dulantzi MEPU	59.875,27
5	Urkabustaizko udala / Ayuntamiento de Urkabustaiz	010389	EMPU Urkabustaiz MEPU	55.929,84
6	Ayuntamiento de Asparrena Asparrenako udala	010323	EMPU Asparrena MEPU	23.137,26

GIPUZKOA

zb	Titularra	Zentroko kod.	Zentroaren izena	Emandako dirulaguntza
7	Donostiako udala / Ayuntamiento de San Sebastian	012773	EMPU Donostia MEPU	1.396.738,94
8	Ayuntamiento de Errenteria - Errenteriako udala	012170 013005	EMPU Errenteria Musikal MEPU CPM Errenteria Musikal MKP	634.304,33
9	Irungo udala / Ayuntamiento de Irun	012109 012933	EMPU Irun MEPU CPM Irun MKP	584.768,16
10	Pasaiako udala / Ayuntamiento de Pasaia	012934	EMPU Pasaia MEPU	325.375,85
11	Hernaniko udala	012077	EMPU Hernani MEPU	317.777,63
12	Elgoibarko udala / Ayuntamiento de Elgoibar	012772	EMPU Inazio Bereziartua MEPU	316.988,50
13	Tolosako udala	012243	EMPU Eduardo Mocoroa MEPU	275.280,21
14	Loatzo udalerrien mankomunitatea / Mancomunidad de municipios Loatzo	013188	EMPU Loatzo MEPU	274.299,52
15	Eibarko udala / Ayuntamiento de Eibar	012057	EMPU Juan Bautista Guisasola MEPU	258.144,83
16	Beasaingo udala / Ayuntamiento de Beasain	012029	EMPU Loinatz MEPU	252.640,53
17	Andoaingo udala/Ayuntamiento de Andoain	012674	EMPU Andoain MEPU	242.069,65
18	Ayuntamiento de Orio - Orioko udala	012138	EMPU Danbolin MEPU	206.247,84
19	Debako udala/Ayuntamiento de Deba	012044	EMPU Deba Musikal MEPU	193.660,08
20	Zarauzko udala	013528	EMPU Imanol Urbieta MEPU	184.411,70
21	Lezoko udala / Ayuntamiento de Lezo	012120	EMPU Tomás Garbizu MEPU	183.027,37
22	Zumaiako udala	012910	EMPU Txori-Txiki MEPU	154.946,73
23	Mutrikuko udala / Ayuntamiento de Mutriku	013162	EMPU Mutriku MEPU	110.029,56
24	Urnietako udala / Ayuntamiento de Urnieta	013446	EMPU Lourdes Iriondo MEPU	86.176,49
25	Ayuntamiento de Getaria - Getariako udala	013342	EMPU Getaria MEPU	69.415,95

BIZKAIA

zb	Titularra	Zentroko kod.	Zentroaren izena	Emandako dirulaguntza
26	Ayuntamiento de Bilbao - Bilboko udala	014988	EMPU Jesús Arambarri MEPU	1.065.542,83
27	Getxoko udala	014992	EMPU Andrés Isasi MEPU	675.504,75
28	Ayuntamiento de Barakaldo - Barakaldoko udala	014999	CPM Barakaldo MKP	559.832,78
29	Ayuntamiento de Leioa	014993 015065	EMPU Leioa MEPU CPM Leioa MKP	558.771,99
30	Durangoko udala / Ayuntamiento de Durango	014990 015589	EMPU Bartolome Ertzilla MEPU CPM Bartolome Ertzilla MKP	481.751,03
31	Ayuntamiento de Mungia - Mungiako udala	015010	EMPU Mungiako Santos Intxausti MEPU	559.573,69
32	Ayuntamiento de Galdakao - Galdakaoko udala	014991	EMPU Maximo Moreno MEPU	392.448,02
33	Gernika-Lumoko Udala - Ayuntamiento de Gernika-Lumo	015011	EMPU Segundo Olaeta MEPU	319.334,45
34	Ayuntamiento de Erandio - Erandioko udala	015001	EMPU Erandio MEPU	304.201,61
35	Ayuntamiento de Portugalete - Portugaleteko udala	014995	EMPU Euterpe MEPU	249.287,67
36	Ayuntamiento de Santurtzi - Santurtziko udala	014996	EMPU Santurtzi MEPU	240.636,17
37	Ayuntamiento de Artea - Arteako udala	014989	EMPU Arratia MEPU	231.572,08
38	Amorebieta-Etxanoko udala / Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano	015587	EMPU Zubiaur MEPU	224.203,32
39	Ayuntamiento de Sestao	014997	EMPU Víctor Miranda Zuazua MEPU	212.925,09
40	Ayto Valle de Trapaga-Trapagaran - Trapagarango udala	014998	EMPU Trapagaran MEPU	193.993,81
41	Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko udala	014987	EMPU Jose Antonio Egia MEPU	187.457,99
42	Lekeitioko udala / Ayuntamiento de Lekeitio	016003	EMPU Musikaia MEPU	121.639,04
43	Ondarroako udala/Ayuntamiento de Ondarroa	014994	EMPU Unanue`tar Pedro Mari MEPU	119.795,59
44	Berriatuko udala/Ayuntamiento de Berriatua	015739	EMPU Tarine MEPU	106.718,06
45	Ayuntamiento de Basauri - Basauriko udala	015825	EMPU Basauri MEPU	99.833,57